


EDITORIALA



Eraikuntza-sektorea krisian izateak lan egiteko modua birplanteatzera eraman gaitu berriz ere. Batetik, antzinako modu tradizionalaren aldeko korrontea dugu. Eskulana eta prozesatu gabeko materialak bultzatzeko nahia ageri da. Bestetik, teknika berriak txertatzearen alde egiten du jende askok. Software edo fabrikazio automatizatuaren zaleak dira. Teknikatik haratago doazen inplikazio sozioekonomikoak eragiten ditu korronte bakoitzak.

Esate baterako, lanaren eta produkzioaren automatizazioa lortzeko determinazioak prozesuan parte hartzen dutenen heziketa-maila altua izatea exijitzen du. Are gehiago, etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da, efizientzia-maila altua lortu nahi bada. Gizarte kohesionatu eta aurrerakoi batean aplikatzen dira gehienbat fabrikazio-prozesu automatizatuak. Automatizazioak eginbehar konkretu bat betetzeko langile gutxiagoren beharra ekartzen du. Baina langalera puntual horiek beste aukera batzuekin ordezkutzen dira herrialde garatuenetan.

Eskulanean oinarrituriko eraikuntza masiboa, baldintza kaxkarretan lan egitera behartua izaten da, askotan. Kualifikatu gabeko eta koste baxuko langileak erabiltzea nabaria da. Adibide garbia Persiar golkoan ikus daiteke gaur egun. Bertako eraikitzaile aberatsak islamiar herrialde txiroetako eskulan merkeaz profitatzen dira. Laneguna euro gutxi batzuen truke betetzen dute langileok. Esklabotzazko kasuak salatu izan dira. Euskal Herrian, neurri askoz txikiagoan bada ere, kanpotar ugari lan egin izan du eraikuntzan.

Ezagunak ditugu enkofratzaile portugaldarrak eta arotz errumaniarrak; gurean, inork nahi ez dituen lanak egiteko prest izaten dira. Tamalez, haiek jasaten dute istripu gehien. Esate baterako, Donostian, Ibaetan bertan, langile portugaldar bat hil zen pasa den martxoan, aldamio batetik erorita.

Eskulana erabiltzen duten adibide interesgarri berriak edo "berrizatuak" ere badaude, autoeraikuntza eta auzolana esaterako. Kasu horietan, gainera, parte-hartze sistema egokiek kudeatuak izaten dira. Errekurtso gutxiarekin eta tresneria arruntarekin eraikitzen dute auzolana bultzatuz. Komunitate txikiak biziberritzeko eta elkarlanaren garrantziaz jabetzeko ekimen oso baliagarriak dira.

Gure gizarte geroz eta formatuago eta teknifikatuagoan (esku)lanean ibiltzeak ez du gazte asko erakartzen. Lan pisuak eta arriskutsuak, zailak izaten dira ordenagailu aurrean behar egitera ohitua denarentzat. Lanik gabe dagoen arkitekto zein ingeniari ugari obran jarduera eta erantzukizun gehiago hartzera prest legoke, fabrikazio- eta muntatze-sistema aurreratuak egongo balira. Alegia, eraikuntza 3D-an inprimatzea bezain erraza izango balitz, gure lankide askok gustura egingo lukeen lana litzateke.

Arkitektook parte aktiboa izan beharko genuke eraikuntza-prozesu hauetan guztietan. Dela auzolan-komunitateak bultzatuz, dela eraikuntza automatizatuan ikertuz. Ezin dugu ikusle hutsarena egin. Zein izango da zure aukera, eskuz ala makinaz?